

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4630

358/2023 EBAZPENA, irailaren 13koa, Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Miren Agurtzane Paskual Uribe andrea Erizaintzako Zuzendaritzaren Ondokoa (Lehen Mailako Arreta) kargutik kendu egin den, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko Erakunde Sanitario Integratuan.

Irailaren 23ko 346/2021 Ebazpenaren bidez, Miren Agurtzane Paskual Uribe andrea Erizaintzako Zuzendaritzaren Ondoko (Lehen Mailako Arreta) izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko ESiko Urdulizko Ospitalean.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza-Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Miren Agurtzane Paskual Uribe andrea Erizaintzako Zuzendaritzaren Ondokoa (Lehen Mailako Arreta) kargutik kentzea, berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko ESiko Urdulizko Ospitalean, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2023ko irailaren 13tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Barrualde-Galdakaoko ESleri Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Urduliz, 2023ko irailaren 13a.

Uribeko ESiko zuzendari-gerentea.

EB (170/2021 Ebazpena, martxoaren 30ekoa).

Langileen zuzendaria,
IANIRE LAMIKIZ MOREIRA.